



Vitoria-Gasteizko Herritarren Zientzia 2015

Jarraipen programetarako datuak bidaltzeko eta koordinatuak lortzeko metodologia

Informazioa bidaltzeko metodologia

Herritarren Zientzian Parte Hartzeko Sarearen barruko jarraipen programak herritarren parte-hartze askean oinarritzen dira, alegia, herritarrek ez dute izena eman beharrik, edo ordutegi jakinak bete beharrik jarduerak burutzeko. Hauek dira zeregin edo betebeharrak:

- Dena delako jarraipen programari dagokion habiaren edo espeziearen **argazkia** bidaltzea, ahal dela, koordinatuak argazkiaren beraren propietateen barruan sartuta.

Argazki batek egin dugun lekuaren koordinatuak atxikita dituen ala ez jakin ahal izateko, ordenagailuan begira dezakegu ea irudiaren propietateen barruko *xehetasunak* atalean agertzen diren.

- Ondoren, "**Ciencia Ciudadana VG 2015 Ficha Programas de Seguimiento Herritarren Zientzia VG 2015 Jarraipen Programen fitxa.xls**" fitxa (Excel formatuan) beteko dugu, behar diren datuekin (lauki bakoitzean zehazten da zer jarri behar den). Zehazki, datu hauek eman behar dira:

- Jarraipen programa. Jarraipen programari dagokion zenbakia zehaztu behar da: **(1)** Mikaren JP, **(2)** Enara azpizuriaren JP, **(3)** Espezie exotiko inbaditzaileen JP.
- Espezia. Espezie exotiko inbaditzaileen jarraipen programan espezia ere zehaztu beharko da.
- Data. Begiztatzea eta argazkia egin ziren eguneko data. Data formatua: urtea/hilabetea/eguna (adib.: 2015/01/01).
- Helbidea. Habia edo espezia ikusi den lekuaren helbidea (adib., kalea eta zenbakia).
- Deskripzioa. Espezia begiztatu dugun lekuaren deskribapen laburra. Bereziki garrantzitsua da deskripzioa ezinezkoa gertatu bada gainerako informazioarekin batera koordinatuak eranstea, edo horien benetakotasunaz zalantzarik sortzen bada. Arren eskatzen dizuegu beti egiteko, geroago egiaztatu behar bada ere.
- Koordenatuak. Ez da nahitaezkoa, baina eskertzekoa da horiek eranstea. Geroago azalduko dugu nola egin.
- Oharrak. Parte-hartzaileek egokitzen jotzen dituzten oharrak jaso ditzakete, esaterako, argazki artxiboari koordinatuak erantsi ahal izan dizkion eta zein metodo erabili duen horretarako.
- Izena. Jarraipena egiten ari den pertsonaren izen-deiturak.
- E-posta. Jarraipena egiten ari den pertsonaren helbide elektronikoa.

Koordenatuak lortzeko metodologia

Jarraipen programen helburuetako bat datu-base bat sortzea da, aztergai ditugun espezieak begiztatu ditugun lekuaren kokapen ahalik eta zehatzenarekin (GPS edo UTM koordinatuak). Argazkiek jarraipen programaren barruko habien edo espezieen ikusizko erreferentzia eduki



ahal izateko balioko dute. Hala ere, jende guztiak geolokalizazioa ahalbidetzen duen teknologiarik ez duela kontuan hartuz, beste aukera batzuk ematen ditugu:

- GPS/UTM koordenatuak gehitzeko aukera ematen duen mugikorraz ateratako argazkiak.

Askotariko gailuak daudenez, ezin da zehatz-mehatz azaldu nola konfiguratu behar den zerbitzu hori. Dena dela, jarraibide orokor batzuk emango dizkizuegu, kokalekuaren metadatuak argazki artxiboan gordetzeko zer aktibatu behar duzuen jakin dezazuen:

- o Argazkia ateratzean, aukera hauek aktibatuko ditugu:
 - GPS kokapena. Lehenengo, GPS kokapena aktibatu behar da, gure kamerak argazkian bertan gehitu ditzan koordenatuak, bai eta hori eskuratzeko baimenak ere, datuak hartutako irudietan sartu ahal izateko.
 - Interneteko konexioa.

- Argazki kamera batzuek aukera ematen dute irudiei koordenatu geografikoak zuzenean eransteko, argazkia egiten dugun unean.

Mugikorrek edo kamerak horrelako aukerarik ez badu, argazkia atera ondoren apuntatu edo erants ditzakegu koordenatuak.

GPSa ez da ezinbestekoa: argazkia egin den lekuaren deskribapena apuntatzen bada, gero koordenatuak online zerbitzari kartografiko batean –esaterako, Eusko Jaurlaritzarena edo SIGPAC– bilatu ahalko dugu.

- GPS bilagailua. Autoko GPSa (batzuek *oinezko modua* jartzeko aukera dute) edo antzekoren bat baliatu daiteke. Metodo hori erabiliz gero, komenigarria litzateke jakitea zein datum mota (erreferentziazko satelitea) erabiltzen duen gure GPS modeloak. Bestela, garrantzitsua da behaketa puntua deskribatzea, zein koordenaturi dagokien egiaztatu ahal izateko. Gainera, fitxaren *oharrak* atalean datum mota zein den zehaztea komeni da, edo ez dakigula aipatzea.

Edonola ere, begitatzte puntuaren kokapenari buruzko datu guztiak jasoko dira (helbidea eta deskribapena).

Bereziki garrantzitsua da unean bertan apuntatzea, ezer esanguratsurik ez ahazteko, batez ere koordenatuak eransterik ez dugun kasuetan. Kalearen edo lekuaren zenbakia jakiterik ez badugu (esaterako, parke baten erdian gaudelako), inguruaren argazkiak ere egingo ditugu, errazago aurkitu ahal izateko.

Geroago, ordenagailua eskura dugunean, koordenatuak bilatzen saia gaitzke, apuntatu ditugun helbidea eta deskribapena baliatuz. Izan ere, kartografia zerbitzuren bat –Google Maps, Google Earth edo GEO Euskadi– erabiliz kokalekuaren koordenatuak zein diren jakin dezakegu. Oraingo gailu mugikorretan ere balia daitezke aplikazio horiek, beraz, koordenatuak behaketaren unean bertan jaso daitezke. Datu-bilketa errazteko, lagungarria litzateke zein programa erabili den zehaztea, edo aldatu egin den ala besterik gabe lehenetsitako ezaugarriak erabili diren (datu horiek "JPren datuak bidaltzea" fitxaren *oharrak* atalean zehaztu). Horrelakoetan, komenigarria litzateke habiaren edo espeziearen argazkiarekin batera kokalekuaren maparen pantaila-argazkia ere gehitzea, fitxan koordenatuak apuntatzeaz gain.